


Txakur Beldurtia




Behin batean Txorierriko baserri batean txakur beldurtia bizi zen. Baserri handia eta oso zaharra zen.

Ez zen inor bizi gure txakur beldurtiaz gain. Baina txakurrak pentsatzen zuen mamuak bizi zirela.

Ilargia zeruan zegoenean hots arraroak entzuten zituen. Haizea entzuten zen hormetatik sartzen, norbait zoruko egurra zapaltzen, ateen danbadak.... Txakurra dardarka hasten zen, buztana hanken artean sartu eta armairuan ezkutatzen zen. Barruan bere buruari esaten zion:

– Zergatik beldurtzen naiz? Mamuak ote dira?

Armairuaren barruan denbora luze ematen zuen.



Egun batean goseak eta aspertuta zegoen armairuan eta irtetea erabaki zuen.

Artez irten zen, muturra gora eta aurrera begira. Kanpora irten zen hezurra bilatzera. Baratzean zuloa egin eta hezur gozoa aurkitu zuen.